

Araztasunaren kontrola (III): irekidura eta abiadura

Itziar Nogeras

Atal honetan OBTURADOREARENEAN aipatutako diafragmaren eta obturadorearen arteko konbinazioen berri ematera gatoz.

Pelikulak irudia argi erreproduzitzeko argi-kantitate egokia jaso behar du, **gainesposizioa** eta **azpiesposizioa** gerta ez daitezten. Argitapen-egoera normaletan ez du garrantzi handiegirik obtura-

zio-abiadura handia dagokion irekidura txikiak edo alderantziz erabiltzeak. Bi kasuetan pelikulak argi-kantitate bera jasoko du, hau da, **esposizio** bera izango du (ontzi bat ur-kantitate beraz beteko da denbora laburrez eta inbutu zabalez zein denbora luzez eta inbutu estua erabiliz). Lerro hauen ondoko diagraman, diafragmen posizioen eta obturazio-abiaduren arteko erlazioa ikus dezakegu.

Aukeraturiko konbinazioa, argazkia atera beharreko subjektuaren eta lortu nahi den emaitzaren baitakoa da.


Baina, ez da beti bi baldintza horien baitan bakarrik egoten. Zen-

Hiru argazkiek esposizio bera izan dute baina, abiadura eta irekiduraren arteko konbinazio bakoitzak emaitza desberdinak eskaini ditu.



esposizioa: 1/500eko abiadura, f2,8an

Abiadura eta irekidura handiz ateratako argazkia. Higidura finkatuta azaltzen da (baita higidura azkarrena, hau da, poltsaren higidura zirkularra, ere) eta irekidura handia dela medio, eremu-sakonera murriztu egin da, hondea zirriborrotu azaltzen delarik.



esposizioa: 1/60ko abiadura, f8an

Higidura azkarrena (zirkularra, alegia) zirriborrotu azaltzen da eta, diafragmaren itxiera dela medio, erdialdeko distantziak arazt azaltzen dira.




esposizioa: 1/15eko abiadura, f16an

Abiadura eta irekidura txikiz ateratako argazkia. Higitzen ari diren elementuak zirriborrtu daude, baina irekidura txikiaren eraginez eremu-sakonera zabaldu egin da, gehiena arazt azaltzen delarik.





Irekidura eta abiadura konbinatzeko era



baitetan, irekiduraren eta abiaduraren arteko konbinazioa argiztapen-mailak erabakitzen du. Hau da, oso argi gutxi badago abiadura txikiak (eta irekidura handiak) erabiltzea beste erremediorik ez da izango; eta, argi asko badago, berriz, abiadura handiak (eta irekidura txikiak) erabili beharko dira.

(Hurrengo batean esposizioa kalkulatzeko erari buruz hitz egingo dugu).

Exposizioa aukeratu ondoren, subjektua nola interpretatu nahi den erabaki behar da. Eremsakonkeraz zona bat nola nabariaraz daitekeen eta subjektuaren zein

ELKARREKIKOTASUNAREN LEGEA

Lege horren arabera: $\text{exposizioa} = \text{intensitatea} \times \text{denbora}$. Intensitatea, argi-kantitatea, eta denbora, argi-kantitate horrek emultsio fotografikoan eragiten dueneko tartea izanik.

Baina, emultsio fotografikoen sentikortasunak mugak ditu eta oso denbora luze (1 s-tik gora) zein laburrez (1/8.000 s-tik behera) huts egiten dio lege horri (ELKARREKIKOTASUNAREN LEGEAREN AKATSA). Beraz, kontuz ibili beharra dago eta teorikoki kalkulatuak esposizioak baino handiagoak erabili beharko dira kasu horietan. Horretarako intensitatea edota denbora handiagoak egin beharko ditugu.

kameraren mugimenduak kontutan hartu behar dira.

Diagrama horretan, esposizio egokia mantenduz abiadura eta irekidura nola konbina daitezkeen ikus dezakegu. Irekiduren eskalako pauso bakoitzari abiaduraren jarraitzen bazaio, pelikula argi-kantitate bera jasotzen du. Beraz, fotometroak (edo pelikularen argibideek) horietako konbinazioen bat iradokitzen badu, beste edozein aukera daiteke eremu-sakonera edota araztasuna aldatu nahi bada. Bietako aldagairen bat bakarrik aldatuz

gero (bestearekin konpentsatuz gabe), esposizioa aldatu egiten da. Bestetik, badira diagrama horretan azaltzen ez diren abiadura motelagoak ere (1 s-rarte), irekidurarekin berdin konbinatzen direnak.

Oro har, irudikoen moduan azaltzen dira aginteak. Zenbaitetan, aginte hauek elkarren ondoko eraztunak izaten dira, eta bien konbinazioa aukeratu ondoren, biak batera mugitzen dira.

HIZTEGIA

gainesposizioa. Material sentikoarri esposizio luzeegia eman izanari esaten zaio. Horren ondorioz, dentsitatea handiagotu eta kontrastea txikiagotu egiten da.

azpiesposizioa. Irudi fotografikoari esposizio motzegia eman izanari esaten zaio. Horrek dentsitatea eta kontrastea txikiagotu egiten ditu.

exposizioa. Argi-intensitatearen eta argiak eragiten dueneko denboraren arteko emaitza. Lehena diafragma-irekidurak eta bigarrena obturazio-abiadurak kontrolatzen du.

